


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 jaitsi ziren 2005eko irailean

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko iraila, 2004ko irailarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %3,7 gehitu ziren

2005eko irailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,1 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta irailerako urte arteko tasa %3,7ra iritsi zen, EUSTATEN datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2005



(*)Gehikuntza irailako urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2005eko irailean, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0) eta lehengaien kostuak, berriz, %0,1 jaitsi ziren.

Eraikuntza eta Obra zibila azpisektoreek bilakaera desberdinak izan zituzten. Lehengaien kostuei dagokienez, Eraikuntzan (%-0,2) indizea murriztu egin zen, baina Obra Zibilean lehengaien kostuak %0,2 igo ziren, aurreko hilaren aldean. Baterako emaitza %-0,1ekoa izan zen, Eraikuntza azpisektorea pisutsuagoa delako Obra Zibila baino. Azpisektore bien urte arteko bilakaerek aldeak izan zituzten: Eraikuntzako lehengaien kostuak %3,2 igo ziren eta Obra zibilekoak %3,9.

Irailean prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiek izan zituzten: *petroliotik eratorritakoak* (%5,0), *asfalto-produktuak* (%2,8), *olioak eta koipeak* (%2,2) eta *beira* (%0,9) lehengaiek. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten,

besteak beste, *energia elektrikoa* (%-4,9), *leherkariak eta gasak* (%-3,7), *burdina eta altzairua* (%-1,0), *ateratze-agregatuak* (%-0,3) eta *bulego-materiala* (%-0,2) lehengaiek.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *asfalto-produktuak* (%32,1), *petroliotik eratorritakoak* (%31,9), *olioak eta koipeak* (%7,4), *lur erreak* (%6,4), *esku-erremintak* (%6,3) eta *harri elaboratua* (%6,2) lehengaiek. Aitzitik, urteko arteko prezioetan murrizketak izan zituzten *energia elektrikoa* (%-3,4), *bulego-materiala* (%-2,9), *egitura metalikoak eta galdaragintza* (%-0,8) eta *karea, igeltsua eta eskaiola* (%-0,5) lehengaiek.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2005eko IRAILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	119,2	-0,1	3,7	3,4	
ERAIKUNTZA	119,0	-0,1	3,6	3,3	
OBRA ZIBILA	120,1	0,1	4,1	4,1	
LEHENGAIEN KOSTUA	116,3	-0,1	3,4	2,9	
ERAIKUNTZA	116,2	-0,2	3,2	2,7	
OBRA ZIBILA	116,9	0,2	3,9	3,9	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	126,1	0,0	4,6	4,6	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp